

PELLO GONZALEZ: 16 URTETAKO GAZI-GEZAK

·Zuek bai jakin!: Jon Arana ·Erreportajea: Rojo, Zaldua y compañía ·Izerdi patsetan:

Urolaren eskubaloi sailaren 25. urteurrena ·Boteprontoan: Iñigo Igartza

Herri Aldizkaria

Otamotz

2007ko
iraila
129. alea





Entzumen Zentroak

**ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA,
ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO**

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA



Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Pello Gonzalez: 16 urtetako gazi-gezak
- 09 Gure gomendioa**
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**
Irailean lanean hastea asko kostatzen al zaizu?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 14 Erreportajea**
Otamotz.com atari digitalaren hainbat datu
- 16 Klik eta klik**
Carlos Mediavilla
- 18 Zuek bai jakin!**
Jon Arana
- 22 Erreportajea**
Rojo, Zaldua y compañía: beste garai baten azken lekukoa
- 25 Izerdi patsetan**
Urolaren eskubaloi sailaren 25. urteurrena
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Iñigo Igartza




Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Pello Gonzalez: 16 urtetako gazi-gezak

16 urtetan Urretxuko udaletxean lan egin eta gero, lau urtetan zinegotzi bezala eta beste hamabi alkate karguan, Pello Gonzalez Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun diputatua dugu. Berarekin hitz egiten izan gara urte hauetan guztietan herrian egindako lanari eta etorkizuneko erronkei buruz.

Pello Gonzalez bere bulegoan. Argazkia: Gipuzkoako Foru Aldundia.



16 urte asko dira. Zertan aldatu da Urretxu denbora honetan?

Herriaren irudia eta eredia erabat aldatu dira. Industria enpresak eta etxebizitzak elkarren ondoan zeuden. Ez zegoen ongizate maila egokiaz hitz egiterik. Egungo zerbitzuen kalitatea, berriz, Donostiakoen parekoa da. Urte hauetan guztietan akatsak egingo ziren, baina helburuak oso argi zeuden eta lan handia egin da. Prozesuari kezka handiarekin ekin zitzaion, baina industria kontua oso ondo landu zen. Mugitegik lanpostuak sortzen lagundu du eta egun herriko enpresa handiena da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ereduan aldaketak egiteko asmoa dagoela dirudi. Niri neuri, oraindik Udalak egin nahi duena argi ez izatea kezkarria iruditzen zait. Hiru gauzek kezkatzen naute: ez dagoela programa zehatzik, ez dutela beste alderdiekin akordiorik lortu eta zurrumurruek martxan dagoena geldiarazi nahi dutela diotela. Arau berriak adosteko denbora luzea behar da, baina ekonomia eta beharrak kontuan izan behar dira. Egoera ekonomiko ona bizi dugu eta orain dugu etxebizitza eskaria. Etxebizitzak eta enpresentzako zoria eskaini behar ditugu lehenbailehen, bestela urretxuarrak eta enpresak beste toki batera joango dira.

Alkateak berandu baino lehen beste talderen bat gobernuan sartzeara espero zutela esan zuen. Zuetaz ari zen.

EAE-ANVkoek oporren ondoren deituko zigutela esan zuten, baina oraindik ez dute deitu. Ez dakit beste alderdi batzuei lehentasuna eman dieten edo oraindik programa zehaztu gabe duten. Guk ez dugu gobernuan sartzeko inongo arazo-

rik, baina zer egin nahi den jakin behar dugu. Proposatzen digutena entzun eta gero, gure programaren alde borrokatuko gara. Gurekin gobernatu nahi duenak, hitzarmen batean oinarrituta egingo du. Gauza guztiez hitz egiteko prest gaude, baina ezin ditugu herri honen epe ertaineko eta luzeko etorkizunak arriskuan jarri.

Zer diozu hauteskundeetan emaitzaz?

Harritu egin gintuen. Bagenekien ez genituela aurreko hauteskundeetako emaitzak lortuko, EA eta EAJ banandurik aurkeztu baikinen. Zer edo zer jaistea espero

“Etxebizitzak eta

enpresentzako zoria

eskaini behar ditugu,

bestela urretxuarrak joan

egingo dira”

genuen, baina ez horrenbeste. Talde bozkatuena izatea espero genuen. Nire ustez herritarrek EA eta EAJ zigortu egin gaituzte elkarrekin ez aurkezteagatik. EAJkoek ere hori onartu beharra dute: guri gaizki joan zaigu, baina eurei okerrago. Herritarrek azkenaldian bi alderdion artean izan diren tirabirengatik ere zigortu gaituzte. Guri bozkatu izan diguten 600 lagun ez dira bozkatzerak joan. Besteek ez dituzte aurrekoetan baino boto gehiago lortu. EAE-ANVren igoera ez da egoera itzuli egin dela esateko modukoa. Epe motzean galdutako botoak erraz berreskuratuko ditugu, baina argi dago herritarrek gure arteko hika-mikak zigortu dituztela.

Ez duzu uste urretxuarrak zuek egindako lana zigortu dutenik, beraz.

Ez, baina hika-mikak kudeatzea ere gure lana zen. EAJ alkatetza lortzen saiatu zen, arrazoi erratuak medio. Helburua EA ahultzea zen eta lortu zuten, baina eurei garestiagoa atera zitzaion oraindik.

EAJrekin harremanak hobetzeko ahalgintza egin al duzue?

Zer edo zer hitz egin dugu eta, hauteskundeetan lortutako emaitzen inguruan, autokritika egin dutela uste dut. Euren bozeramalea eta gurea elkartu egin dira, lan ildoari buruz hitz egiteko. Dena den, gidatzea tokatzen zaien programa zehazten ez duten bitartean, ez dugu zer egingo dugun esaterik. EAJ eta EAren arteko harreman ona zertxobait berreskuratuko dugula esango nuke. Egia esan, euren zinegotziekin ez dut arazorik izan, baina goitik agintzen zitzaion zer esan eta zer egin behar zuten. Gauza asko gertatu badira ere, hauteskundeetan ondoren berriro ere EAJrekin gobernatzea espero nuen. Legealdian eta etorkizunean harreman ona izango dugula uste dut.

Zer diozu Zumarragan lortu zenituzten emaitzez?

Egia esan, nahiko txarrak izan dira. Beharbada, Arbulu efektuak eragina izango du. Urretxun EAJ du nagusitasuna, baina Zumarragan EAJk. Zumarragan ere elkarrekin ez aritzearen aldeko apustua egin da azken lau urteetan eta EAJk irabazi du partida. Zumarragan ere autokritika egin beharko litzateke.

Hauteskundeetan inguruko zalaparta handiena Urretxun izan da. Zergatik?

Niri ere deigarria iruditzen zait. Ezker abertzaleak kanpaina gogorra egin du, dagoeneko ez nintzela aurkeztuko jakina

zenean. Hala, ez dut kanpaina hori ulertzen. Beste alkateari eman zaizkion erantzunen eta niri eman zaizkidanen arteko aldeak harritu egiten nau. Beharbada Zumarragan hauteskundeak irabaztea ezinezkotzat jotzen zutelako izango zen. Eztabaidak izan ditugu, baina ez dut uste euren kontrako jarrera gogorra izan dudarik. Bestalde, ez dut uste urte hauetan guztietan nire jarrera edo izaera aldatu denik. Beti akordioak lortzen saiatu naiz. Urte askotan aurrekontuak EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin onartu ditugu. Desadostasunak ez ziren horren handiak izango... lazkoak ez zituzten onartu. Horrenbeste aldatu ote ziren aurrekontuak urte batetik bestera? Ez al zen izoztatzeko gogoia besterik izango?

Udaletxean eman dituzun urteen artean, azken hau izan al da gogorrena?

Inongo zalantzarik gabe. Nire ustez EAJK jazarpen jarrera izan zuen eta Zumarragako PSE-EE batu egin zitzaion. Ordura arte eztabaida gogorak izan genituen, bakoitzak bere postura defendatzen zuen, baina leialak ginen eta esandakoa betetzen genuen. Azken urtebetean akordioak hautsi egin dira, emandako hitzari uko egin zaio... Atzean zeuden interesek ez zuten herriarekin zerikusirik. EAJK eta PSE-EEk interes partikularren alde egin dute, hauteskundeetan pentsatuz. PSE-EEren helburua Zumarragan hauteskundeak irabaztea zela uste dut.

Zumarragako alkatearekin izan dituzun hika-miken atzean interes hori zegoela uste duzu, beraz.

Gema Zabaletarekin desengainu handia hartu dut. Hasieran harreman hotza izan genuen, baina gero ondo moldatu ginen. Gauza askotan ados agertu ginen eta gai

askotan akordioak lortu genituen: Euskal Herriaren egoerari buruzkoak, aurrekontuak, Arauak... Gero, dena ukatu zitzaidan. Pribatuan gauza bat esaten zuten eta publikoan beste bat. Nire ustez Zumarragako alkatea EA aultzen saiatu da, horrek hauteskundeetan mesede egingo ziolakoan eta Urretxuko egitasmoak geldiarazteko. Azken finean, konpetentzia gara. Zumarragak eta Urretxuk oso egitasmo garrantzitsuak ditugu epe motzera. Zumarragak etxebizitza asko egiteko asmoa du, gehiegi nire ustez. Urretxuren helburua bere barne eskaria asetzea da, baina Zumarragako planteamendua hedakorra da: eskualde maila-

“EAJren helburua EA ahultzea zen eta lortu zuten, baina eurei garestiagoa atera zitzaaien oraindik”

koa. Konpetentzia garenez, Urretxuri garatzea eragozten ari zaio.

...

Antonio Molinaren aurrean txapela kendu beharra dut. PSE-EEko militantea da aspalditik, baina gertatzen ari zena ikusi zuen eta herriaren alde egitea erabaki zuen. Sekulakoak jasan behar izan ditu.

Irimoren, parkearen eta ikastolaren inguruan zalaparta handia sortu zen.

Desadostasunak bideratu egin ziren. Hala, Irimon merkatal gunea egiteko aukera atzera bota zen. Parkearekin

zegoen arazoaz zer edo zer entzun al duzu? Udalak porrot egin behar omen zuen. Kontu hori 1992ko Arauetan zegoen moduan dago. Arauen kontu honetan hauteskunderi begira jardun ez den bakarra PP izan da. Hasieratik Arau berrien alde egon da eta horri eutsi dio. 440 etxebizitza berri egiteaz hitz egiten ari gara: hori Erreterian edo Donostian Plan Orokorrean aldaketa puntuala eginez lortzen da. Bi hilabeteko kontua izaten da.

Tartean akusazio gogorak izan dira.

Kalean errealtatearekin zerikusirik ez duen irudia zabaldu da. Espekulazioaz hitz egin da. Lurzoruaren kalifikazioa aldatzea espekulatzeko al da? Ikastola espekulatzeko ari al da? Urretxuk eta Zumarragak ez al dute irabazten azpiegitura berriarekin? Egia da Udalaren erabakiak lurjabeari sekulako irabaziak ematen dizkiola, baina badago beste formularik? Babestutako etxeak bakarrik egitea proposa dezaket. Sustatzaileari interesatzen ez bazaio, nork egingo ditu? Ez ditut aurrera atera ezin diren egitasmoak planteatu nahi. Ikastolan etxebizitza libreak egingo dira ikastetxeak eraikin berria egin ahal dezan. Egunen batean ikastola desagertuko balitz, ez nuke nahi sekula hori gertatzea, bere eraikina Udalaren eskuetara pasako litzateke. Ikastola kaxkarra izatetik, Euskal Herriko onenetakoa izatera pasatuko gara.

...

Beste kontu bat berdegunerik ukitu nahi ez izatea da. Baina etxebizitza beharra ase behar da. Lau urtetan erantzunik ematen ez badiegu, herritik joango dira. Hori oso larria da. Hemendik lau urtera, berriz, ez da eskaerarik izango. Bestalde, gure herria txiroen artean dago. Gure abe-

rastason iturri bakarra biztanleak dira. Joaten badira, ezin ditugu zerbitzuak eskaini. Onartu berri diren Arauak ez dira biribilak izango, baina epe motzean ezer ez egitea oso kezkarria iruditzen zait. Etxebizitza hutsak okupatzeko ahaleginak ez du etorkizunik. Gobernuaren arabera, 15 egun bertan ematea nahikoa da etxebizitza huts bezala ez hartzeko. Zenbat geratuko zaizkigu? Urretxuk etxebizitza gehiago egiten ez baditu Zumarragak aseko ditu bere beharrak. Ezin dugu Irimon etxebizitzak egiteaz hitz egin, urteak pasatuko baitira ordurako. Udala erabakiak hartzeko dago.

Zeintzuk izan dira urte hauetako guztietako une gozoenak?

Onena egitasmoak aurrera ateratzen direla ikustea da. Arlo pertsonalean, pozgarriena akordioak lortu izana da. Bestalde, lantalde onak izan ditugu. Udalean aritutako asko lagunak gara eta legegaldi ezberdinetan aritutakook bazkariak eta afariak egiten ditugu. Pasa diren guztiek esperientzia ona izan dela diote. Egoera oso txarra bizi zuen bizilagunen bati lagundu ahal izana ere oso pozgarria da.

Zer izan da okerrena?

Udaletxeko lana esker txarrekoa da batzuetan. Senitartekoek eurekin oso denbora gutxi egon naizela leporatu didate eta arrazoia dute. Bestalde, gizarteak okerrera egin du gauza batzuetan. Duela 16 urte udaletxetik bizilagunei laguntza eske eskatzen deitzen zitzaizenean jasotzen genituen erantzunak eta egungoak oso ezberdinak dira. Herriaren alde lan egiteko askoz ere borondate eskasagoa dago. Norberak bere alde egiten du. Zaborrena oso argigarria da: inork ez du edukiontzia etxe azpian nahi, baina urruti

ere ez. Kaleak gure etxearen luzapena direla ulertu behar dugu.

Ogasun diputatua zara orain. Zer diozu zure egungo erronkaz?

Nire ustez jendea itxaropentsu da. Lan asko dago egiteko. Legegaldi bukaeran zenbait kontu zehazteke utzi dira. Atzetik datorrenari erabakiak hartzeko margena uztea ondo dago, baina azkenaldian hutsunea izan dela iruditzen zait. Horretaz gain, Irungo bulegoaren inguruko aferari aurre egin behar diogu.

Zuen ardura izango da gipuzkoarren konfiantza berreskuratzea.

Bi lan ildo ditugu. Alde batetik, justiziarekin elkarlanean aritu behar dugu. Gure espedienteetan zer edo zer arraroa ikusten badugu, jakinarazi egin behar dugu. Nahiz eta fiskaltzak ez duen beharrezkotzat jo,

“Zumarragako alkatea

Eusko Alkartasuna

ahultzen saiatu da,

Urretxuko egitasmoak

geldiarazteko”

1995etik 2001era bitarteko espediente guztiak errebisatzeko agindua eman dut. Gertatu den guztia jakin behar da. Bestalde, bitartekoak jarri behar dira berriro halakorik gerta ez dadin. Herritarren konfiantza berreskuratu behar dugu.

Zer pentsatu zenuen Ogasun diputatu izan behar zenuela jakin zenuenean? Zure lana lupaz begiratuko dute.

Ogasun diputatu izatea ez zegoen nire

asmoen artean. Hori bai, sail hau EAJ izango ez zen alderdi baten esku egon behar zela aldarrikatu genuen hauteskunde kanpainen bertan. Aire berria behar zen. Negoziazioetan hori bera aldarrikatu genuen eta azkenean ni Ogasun diputatua izatea suertatu da. Batzar Nagusietan alor horretan lan egin dut azkenaldian eta egokiena nintzela pentsatu zuten. Erronka handia da, bai alderdiarentzat bai niretzat. Jendeak asko espero du, Foru Aldundian bertan. Egoerari buelta ematea nahi dute.

Orain arte baino lasaiago biziko zarela uste al duzu?

Oraingo lana lehengoarekin alderatuta oso ezberdina da. Egunero Donostiara joan beharra da okerrena. Erronka handia dugu eta ordu asko sartu beharko ditut, baina 500 langile ditugu eta baliabide asko. Gainera, lau laguneko zuzendari talde oso ona dut. Nire ustez bizi kalitatean irabaziko dut.

Urretxun bizitzen jarraituko duzu.

Bai, bai. Hainbat zurrumurru izan dira: Madrilera joan behar nuela, Gasteizera... Hemendik aurrera herriaz gehiago gozatu nahi dut. Ezaguna izango naiz, baina anonimoagoa izan nahi dut. Orain arte, kalera irteten nintzen bakoitzean, jendea bere arazoekin etortzen zitzaidan. Horrek ez zidan familiaz eta lagunez gozatzen uzten.

Nola bizi behar dituzu jaiak?

Ostiralean koadrilakoak elkartu egiten gara eta larunbatean, Txirimiri elkarteko zuzendaritzan nagoenez, sukaldaritza lehiaketan parte hartuko dut. Euskal Jaiaz eta koadrilen egunaz ere gozatze-ko asmoa dut, noski.

Otamotzek Elhuyarren azken bideojokoa zozketatuko du

Elhuyar Fundazioak KAO: sumendiko sekretua izeneko ordenagailurako bideojokoa kaleratu berri du. Internet bidez probatu daiteke, www.elhuyar.org/kao web gunean. Fundazioak hiru ale eman dizkio Zintzo-Mintzori eta Otamotzen irakurleen artean zozketatuko dira.

Euskarazko aisialdiko bideojokoetan zegoen hutsunea ikusirik, Elhuyar Fundazioak zeregin horri ekin zion iaz. *Kao: Sumendiko sekretua* Fundazioak kaleratu duen euskarazko bigarren bideojokoa da.

3Dko teknologia erabiltzen duen aisialdirako CD-ROMa da eta 10 urtetik aurrerako gaztetxoentzako dago pentsatuta. Tate multimedia-enpresa poloniarrek egin du jatorrizko jokoa eta hainbat hizkuntzatarari ari dira itzultzen.

Jokoaren protagonista Kao izeneko kanguru bat da. Hamar eremutan lagundu behar dio jokalariai Kaori bere eginkizuna gauzatzeko. Bidaia luze baten ostean, uhartean duen etxera itzuli da Kao, atse den hartzera, baina ezin: bere lagun Tximista sumendi baten barrura erori da eta hor bizi diren labazko munstroak esnatu ditu. Munstro horiek uhartea suntsitzea erabaki dute, eta hango biztanleak oso izututa daude. Kaoren eginkizuna



da munstroak garaitzea, uharteko xamanak emango dizkion argibideei jarraituz. Jokalaria ez du aspertzeko aukerarik izango, errealitate birtualeko lasterketak, puzzleak osatu, motordun txalupetan

ibili, airean borrokatu... egin beharko baitu hamar eremu horietan.

Ikus-entzunezko efektu izugarriak ditu jokoak, 3Dko teknologiari esker: palmeren mugimendua nabaritzen da, Kaoren hanka-arrastoak ikusten dira bidea egin ahala, eguneko eta gaueko zikloak minutu gutxiren buruan bereizten dira...

Bideojokoa Internet bidez probatu daiteke, www.elhuyar.org/kao helbidean. Horretaz gain, Fundazioak hiru ale eman dizkio Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarterari eta honek Otamotz aldizkariko irakurleen artean zozketatzea erabaki du. Elhuyarrek euskarara itzulitako jokoa urriaren 15eko arratsaldeko 4etan otamotz.com web orrian erregistratuta dauden artean zozketatuko da. Erregistratzea oso erraza da: otamotz.com web orrian sartu, *parte hartzeko erregistratu* atala sakatu eta norberaren datuak eman behar dira, bertako argibideak jarraituz.



Karmele Jaio

Hamabost zauri

Zauriz beteriko metafora da bizitza. Horren inguruan hitz egiten digu *Hamabost zauri* eleberriak. Hamabost istorioz osatutako ipuin-liburu honekin egin zuen irakurlearen aurrean aurkezpena. Izenburu berak dio. Hamabost zauri aurkitzen ditugu. Hamabost sentimendu. Hamabost bizitza zati. Guztiak gizakiaren komunikazio arazoak sortuak. Zauri gordinak. Baita gozoak ere. Desolazioa edo esperantza sortzen duten

irudiez betea dago liburua. Anonimoak diren pertsonen eskutik iristen zaigu desio, beldur, irribar... bakoitza; baina orriak pasatzen diren heinean, anonimoa den horri aurpegia jartzen diozu, eta askotan baita izena ipini ere. Izan ere, gu bilakatzen gara istorio bakoitzaren protagonista. Gure bizitzaren momenturen bat ikusten dugu bertan islatuta. Hamabost zauri. Zein ote zurea?

Araiz Padron


Massive Attack

Blue Lines

Udan nobedade gutxi. Hobe atzera egin eta klasiko bat aipatzea. Atzo, gaur eta beti entzungo den diska da Massive Attacken *Blue Lines* (1991) jeniala. Bristolgo (Ingalaterra) taldearen aurreneko lana da eta musika egiteko modu bat asmatu zutela esan daiteke. Elektronika dotorea biluzik hartu, eta drum & bassarekin, raparekin, poparekin eta abarrekin jositako jantzi ederrak egin zituzten. Eta horiei bizia emanez, soulez beteriko

ahotsak. Gogoangarriak dira *Unfinished Sympaty* mitokoa, *Safe From Harm* iradokitzaila edota *Be Thankful for What you got* izugarria. Euren soinua Trip Hop izenarekin bataiatu zuten Ingalaterran. Molde bereko hainbat talde sortu ziren euren eraginpean: Portishead, Morcheeba... Zazpi diska kale-ratu dituzte, zortzigarrena ateratzear dago eta *Underground Weather* izango du izena.

Igor Susaeta



Clint Eastwood

Letters from Iwo Jima

Aurten ere udazkenarekin batera zinekluba martxan jarriko da berriro, irailaren 28an. Zikloko lehen filma Clint Eastwooden *Letters from Iwo Jima* izango da. Bigarren mundu gerran Estatu Batuetako eta Japoniako armadek Iwo Jima uhartean borrokatu zuten. Amerikarren garaipen erraza zirudiena 40 egun luzatu zuen, Pazifikoko gudako borroka gogorrena bihurtuz. 20.000 japoniar eta 7.000 estatubatuar hildako izan zituen

gatazka honek, badu Eastwooden beste bertsio bat, *Flags of our fathers* hain zuzen. Bertan estatubatuarren ikuspegia kontatzen zaigu. Bai *Letters from Iwo Jima* baita *Flags of our fathers* filmak ere, oso kritika onak jaso dituzte eta borroka baten bi ikuspegi kontrajarriak erakusteko ahalegin ausarta eta berritzailetzat jo dute. Guda eta gatazken salaketa azken finean...

ButaK 21 zineklub taldea




SaNt
aNax
TaXik
07'

Eutsi
goiari

egurra partitzen

“Mahoizko galtzak eta txalekoa?”



Halaxe egin zion arrapostu baserritar jantziak salgai dituen dendako gizonak Joni, Urretxuko Euskal Jaietarako txaleko berria erostera joan zenean. Haserre antzean esan zion horiek ez direla moduak, garai bateko baserritarrak ez zituela sekula santan gisa horretan jantzita ikusiko –koadrilako lagun on batek ere sarri esan dio hori—. Antza denez, lanean aritzeko, igandeko mezatara joateko eta, Jonek gaizki ulertu ez bazion, erromerietan-eta dantza egiteko desberdin jantzen ziren. Baina Jon bezala, inoiz ez. Hura sakrilegioa! Dendariak, ordea, ez daki Jonek ez duela sekula belar-fardorik altxa edo behirik jaitsi, elizara zein atetik sartzen den duela gutxi ikasi zuela eta barraren aurrean hitz-aspertu luzeak izan baino lehen, nekez dantzatuko duela arinarin edo fandangorik.

Euskal Jai egunean Jon disfrazatu egiten da. Eta hura mozorrotuta ikusi duenak badaki koherentzia

ez dela bere bertuteetako bat. Beraz, hilaren 23an Urretxuko tabernak baserritar autentikoen moduan jantzita bisitatuko dituen kalekumea ez dadila etorri gugana etnografia klase etilikoak ematera, faborez.

Euskal Jai egunean, ongi pasatzea eta etsai gehiegi ez egitea beste helbururik ez dugu izaten. Jaia egingo dugu, ez izan zalantzarik. Eta Euskal portatuko gara; Euskalegi, aukeran. Eta Euskal portatuko dira ere Urretxuko tabernariak, iluntze partera arte behintzat. Trikiti-patxanga pieza gogoangarri piloa entzungo dugu taberna gehienetan, baserritar jatorrez mozorrotutako kalekumeak ongi tratatu behar direlako egun seinalatu horretan. Txakolin botila bakoitzeko 6 euro (edo gehiago) ordainduko dutenek merezi dute detailtxo bat, noski. Tira, Jonek ziur eskertuko duela... Esan dizuegu koherentzia ez dela bere bertuteetako bat, ezta?

Irailean lanean hastea asko kostatzen al zaizu?

Zeure buruari erronkaren bat jartzeko ohitura al duzu?

IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I	A A A O O L I
1 2	1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4	1 2
3 4 5 6 7 8 9	8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11	3 4 5 6 7 8 9
10 11 12 13 14 15 16	15 16 17 18 19 20 21	12 13 14 15 16 17 18	10 11 12 13 14 15 16
17 18 19 20 21 22 23	22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25	17 18 19 20 21 22 23
24 25 26 27 28 29 30	29 30 31	26 27 28 29 30	24 25 26 27 28 29 30
			31

Maria Jesus Ganuza



Iraileko aldapak ez dit eragiten, duela lau bat hilabete etxean oso atsekabe latza bizi izan baikenuen eta oraingo nire helburu bakarra zulotik ateratzea baita. Bestelakoan, boluntario lanak egiten ditut egoitza batean. Esaten dutenez, urtaro aldaketetan jendeak estresa pairatzen du.

Arantxa Azpiazu



Ez dut irailan ezer berezia egiteko ohiturarik. Kiroldegian lan egiten dudanez, uda amaieran eta Gabonetako oporren ondoren jendeak kiloak kentzeko beharra sentitzen duela ikusten dut. Hori bai, askok ez dute gehiegi irauten.

Joseba Santiago



Oporretatik lanerako gogorik gabe eta nekatuta bueltatzen naiz. Egia esan, ez daukat ezer berezirik egiteko asmorik. Dena den, ehizean ibiltzen naiz eta asteburuetan mendira joatea gustatzen zait. Hala, astean zehar pilatutako tentsioa askatzen dut eta burua beste kontu batzuetan edukitzea lortzen dut.

Juan Francisco Lizarazu




Oraintxe bajan nago, bihotzeko arazoak izan nituen eta. Egia esan, sekula ez dut oporren ondorengo estresik izan. Nire lana gogoko dut. Dena den, mendira joateko ohitura dut betidanik. Hori bai, orain bidegorrian bakarrik ibil naiteke.

Gaia: Iraila Urretxun

Doinua: Zer da gaur Donostian?

Mikel Iturriotz




Udan jarri zaizkigu
gauzak parez-pare,
eta ez gara egon
lasai eta bare.
Egin naiz oroitzapen
ugariren jabe,
baina akats txiki bat
hor doa suabe:
udako koaderno
daukat egin gabe... (bis)

Berriz ikasturtea
hasteko parada,
eskolarako bueltak
dakarren ikara.
Irakasgaien zama,
azterketen traba...
Gauza bat eskatzeko
ordua da, jada:
jaiak gainean daude
"ama: eman paga!" (bis)

Hau da iraileroko
eztabaidagaia:
"utzi hirurak arte,
ama, degu jaia!"
ta amak: "ordubiak!"
haserre Amaia,
"ni hamabiak arte"
hortxe da anaia,
ez degu pasako ez
momentu alaia... (bis)

iritziz iritzi

Josu Aztiria



Baserritarrez ala bermudekin?

Igandean Euskal Jai eguna da: karrozero ginen garaiko xarma ez duen arren egun ederra da, festetako egunik politena. Normala denez aldatuz joanda urteak pasatu ahala. Karrozen gaien ere bilakaera izan da: gaur baserri gutxiago eta gai sozial gehiago ikusten ditugu, zorionez. Egunak euskalduntasunaren aldarrikapena izaten jarraitzen du, baina iruditzen zait, beste festa asko bezala, eszenifikazio hutsa besterik ez dela askorentzat. Euskal Jaietan baserritarrez jantzita edo Kilometroakera joanda betetzen dugu gure kupoa. Urtean zehar euskal talde bat bera ere jarri ez duten tabernariak *Patata tortila* edo *Furra Furra* jarriko digute aspertu arte eta inoiz baino euskaldunagoa sentituko da baserritarrez jantzita doan

autoktonoa. Nahiago nuke urtean zehar euskal musikari tratamendu duina emango liokeen tabernan Euskal Jai egunean *Seré tu amante bandido*, *bandido* kantarekin dantza egin edo bermudekin atera baina euskaraz bizi den jendetza ikusi. Andu Lertxundik ederki azaldu du ideia hau: "Balirudike gure bizitza publikoak beharrezkoa duela euskalduntasunaren antzeppen halako bat, mistifikazioa, baina hor geratzen gara jakin ezinik halako jardun jakin bat noiz den inpostazioa noiz inpostura. Euskalduna izan, euskaldunarena egin. Ez dut esango euskalduntasunak ere eszenifikazioarik behar ez duenik, baina mozorroak aurpegia ez ukatzekotan". Hemen gure dilemetako bat: euskalduna izan edo euskaldunarena egin.

1948-49

Urretxuko musika banda

Zutik: Fidel Okariz, Jesus Aranburu, Jose Larreina, Gallego, Gabriel Zamalloa, Eliseo Aldama, Marcos Lizarralde, Inazio Gonzalez (zuzendaria), Inazio Txintxurreta, Jose Arrieta, Juan Arrieta, Laureano Mendia, Antonio Moncalvillo.

Eserita: Inazio Mantxola, Luis Mantxola, Ramon Esnaola, Jose Maria Arranz, Modesto Arrizabalaga, Julian Azurmendi, Martin Grandes.

Musikariak Juan Kruz Mendiolaren etxearen atzealdeko plazatxoan daude.

Argazkia: Ramon Esnaola.



Otamotz.com atari digitalaren hainbat datu eta zenbaki

Maiatzaren 14an Google Analytics aplikazioa jarri genuen eta, horri esker, otamotz.com web orriak jasotzen dituen bisiten informazio zehatza dugu. Ordutik irailaren 14ra bitartean 11.626 bisitari izan ditugu eta 67.211 orrialde erakutsi ditugu. Horra hor beste datu batzuk.

DATU OROKORRAK

- Bisitariak: 11.626.
- Ikusitako orrialde kopurua: 67.211.
- Martxan jarri genuenetik 205 albiste argitaratu dira eta 46 erantzun jaso ditugu.
- Bisita gehien maiatzaren 28an izan genituen: 249 bisitari eta 1.702 izan ziren ikusitako orrialdeak. Gogoan izan maiatzaren 27an udal hauteskundeak izan zirela eta jarraipen sakona egin genielarik atariaren bitartez.

OTAMOTZ.COM-ERA HELTZEKO BIDEAK ZEINTZUK IZAN DIREN:

- Bisiten %41 Googletik etorri dira.
- Zuzenean: %39 inguru.
- Sustatutik: %5.
- Besteetatik %5.

GEHIEN IKUSI DIREN ALBISTEAK

- Denbora tarte honetan Sustatun gehien irakurri diren 10 albisteak:
- Iñaki Zabalarri bideo-elkarrizketa.

- Paole taldeak irabazi du 3x3 saskibalo txapelketa.
- Zumarragar bat Antzuolako alkatetza lortzear.
- Beitia Mendi-martxa jendetsua izan zen igandean.
- Bideo-elkarrizketa Anton Arbuluri.
- Urretxu eta Zumarragako taldea, Gipuzkoako txapeldun.
- Zumarragako Udalaren osaketa ofiziala eta ez-ofiziala dauzkagu.
- Prebarikazio delitua (Iritzia).
- Ikastolako LH6. mailakoak Terrasan dira jada.
- Kafe Antzokiaren proiektua zertan den.
- Atalei dagokienez, argazkiak, bideoak, udal hauteskundeetako emaitzak eta Gida oso bisitatuak izan dira.

NABIGAZIO HIZKUNTZA

- Nabigatzailea euskaraz konfiguratuta daukaten erabiltzaileen kopurua ez da handia. Oraindik ere hiru bisitaritik bik

erdaraz (Gaztelera, ingelesez...) daukate konfiguratuta nabigatzailea. Euskaraz konfiguratzeko informazioa www.sustatu.com/euskaraz orrialdean duzue.

ERABILITAKO NABIGATZAILEAK ETA PLATAFORMAK

Erabiltzaileek darabilten nabigatzaileari dagokionez, Explorer da oraindik nagusi, baina Firefoxek tarte jaten jarraitzen du. Guk Firefox sistema erabiltzea gomendatzen dugu: erabilgarriagoa delako, librea delako eta euskaraz ere badagoelako.

- Explorer %55.
- Firefox-Mozilla %40.

Beste nabigatzaileen lekua oso txikia da eta ez da hazi denbora-tarte honetan (Safari %1, Opera %0,30).

Erabilitako plataformei dagokionez, Windows nagusi (%92), eta ondoren, Mac (%4) eta Linux (%4).

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbrea

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics

URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premark.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROSATEGIA

Altzariak neurria

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

ALEX-KIBOLAK

alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria

Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net




▲ Ale honetan Urretxu eta Zumarragako festa ekitaldietan ateratako argazkiak ikus ditzakezue.

Carlos Mediavilla



Jon Arana: Mendizale amorratua

Jon Arana zumarragarra mendizaletasun eta espeleologia kontuan aitzindaria izan zen. Bera izan zen Karrantzako Torca del Carlista zulo ezaguna jaisten lehena, 1957an. Urteurren hori ospatzeko, 82 urterekin, berriro jaitsi nahi du. Bertan Antioko Amabirjinaren irudi bat uzteko asmoa du, Zumarragako herriaren izenean.



Zumaian bizi zara, baina zumarragar peto-petoa zara.

Jendeari bi titulu handi ditudala esaten diot: Zumarragakoa izatea eta Eliz-Kale zaharrekoa, gainera. Nire ama Berroeta baserrikoa zen eta aita donostiarra, Uliakoa. Amak sukaldaritza ikasi nahi zuen eta Arzak sendiarengana joan zen neskame. Han ezagutu zuen aita. Ordiziara ezkondu ziren eta nire arreba zaharrena, Julita, bertan jaiotakoa da. Gero, Zumarragara etorri ziren. Gainontzeko zortzi anaia-arrebak hemen jaio ginen.

Ama sukaldari ona izango zen.

Oso emakume saiatua zen. Familia aurrera ateratzeko beltz lan egin zuen. Jaka familiaren butaka lantegirako ere aritzen zen.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Bizitza zoragarria zen. Tope jolasten

genuen. Ez ginen geldirik egoten. Eskolara mojetara joaten ginen, eliza ondora. Zazpi urte betetakoan Hermanoetara joan nintzen, hamabost urte bete nituen arte.

Garai hartan gerra bizi izan zenuen.

Bai... Mugitua eta jakinmin handikoa nintzen. Erreketek bat kanposantura hilda ekarri zutela jakin nuen eta lagunei joatea proposatu nien. Bakarrik joan nintzen eta autopsia gelako zerrailaren zuloatik gizon ikaragarria zela ikusi nuen. Halako batean mugitzera zihoala iruditu zitzaidan eta korrika bizian atera nintzen handik. Milizianoek Belokin egindako trintxerak eta Francoren jarraitzaileak Zumarragan sartu zireneko tiroak ere gogoratzen ditut. Jainkoari esker, anaia guztiak gazteak ginen eta ez ginen frontera joan.

Garai gogorak izango ziren. Are gehiago, abertzaleak izanik.

Jaio ginenetik etxean abertzaletasuna irakatsi ziguten. Dena den, ez ziren Sabino Aranaren jarraitzaileak. Sentimendu abertzaleak zituzten, baina karlistak ziren. Gure aldamenean nafar batzuk bizi ziren, Francoren aldeko karlistak. Irratian BBC edo Radio Paris entzun nahi genituenean, guztiok inguruan manta bat gainean jarrita jartzen ginen, bizilagunek zertan ari ginen entzun ez zezaten.

Non hasi zinen lanean?

Berriotxoanean. Urretxura joaten naizen bakoitzean garai haiek gogoratzea tokatzen zait, erreka ondoko tximinia handia lantegi hartakoa baitzen. Gaztetan puntara igotzen nintzen.

Umetatik abila zinen, beraz.

Eskalada eta espeleologia zaletasuna Eliz-Kalen sortu zitzaizkidala pentsatu izan dut askotan. Eitzagatik erreka txiki

bat etortzen zen eta Mertzadariatarren parean tunel batean sartzen zen. Luistarren egoitzaren ondoan zulo bat zegoen eta erreka handik pasatzen zela zioten. Poxpolo batzuekin sartzen ginen. Jakinmina nuen, toki ezkutuetan zer zegoen jakin nahi nuen. Eskaladan ere umetan hasi nintzen. Trenbidearen tunel ondoan harriekin egindako malda gogorra zegoen eta lasterketetan ibiltzen ginen.

Lanean Berriotxoanean hasi zinela esan duzu. Zer egiten zenuten bertan?

Osaba batek, Jesus Seguiolaren aitak, txakur txiki bat oparitu zidan Jaunartzea

“BBC edo Radio Paris entzun nahi genituenean, irrati ondoan manta bat gainean jarrita jartzen ginen”

egin nuenean. Berehala egurrezko kutxa bat egin nion eta amak arotza izateko balioko nuela pentsatu zuen. Hori dela eta, Berriotxoarengana bidali ninduen. Izan ere, bertan altzariak egiten ziren. Dena den, makinetan eta mahai eta aulki tolesgarriak muntatzen jarri ninduten. Ordu asko sartzen genituen, batez ere eskaerak entregatu behar zirenean. Bi alditan 35 ordu jarraian lan egin nuela gogoratzen dut. 21 urte bete nituen arte egon nintzen bertan. Gaixotu eta irten egin nintzen. Laupabost urtetan gaixo nengoela jarraitu nuen, baina azkenean giltzurruna kendu zidaten. Ondoren, hura

gertatu izan ez balitz bezala bizi izan naiz.

Non gehiago aritu zinen lanean?

Orbegozon, bulegoan. Materialaren sartu-irtenak kontrolatzen nituen eta laminazio-ko langileen nominak egiten nituen. 600 bat langile ziren eta nominak astero egin behar ziren, eskuz. Askotan, lana etxera eramaten nuen. Mendira joan nahi nuela esaten nien, baina ez zidaten oporrik eman nahi.

Nolatan bukatu zenuen Zumaian?

Orbegozok behar zituen lingoteak eta ikatza itsasoz heltzen ziren Zumaiara. Deskargen arduradun bidali ninduten, 40 bat urterekin. Zumaiaiko portua itxi zuten arte aritu nintzen bertan. Horrenbeste urte enpresan aritu eta gero, kalera bidali ninduten. 1970 inguruan gertatu zen hori. Oraindik gaztea nintzen eta krisi izugarria zegoen. Kirol denda jarri genuen. Emaztea Zumaiakoa da, baina mendian ezagutu nuen, bere herrira lanera joan aurretik. Ezkondu ginenean Zumarragan jarraitzen nuen lanean eta egunero motorrean joaten nintzen lanera. Gero, gainera, errelebotan jarri ninduten. Seiatarako joan behar izaten nuen lanera.

Gogorra, beraz.

Bai, baina motorrean ibiltzera ohituta nengo. Mont Blanc igotzeko, adibidez, motorrean joan nintzen Chamonixera.

Nolatan zara mendizalea?

Zumarragako mendietan hasi nintzen. Beranduago, Anjel Cruz Jakak Hiru Erregeen Mahaira txangoa antolatu zuen eta lagun asko joan ginen. Gero, Anetora joan nintzen. Handik, Picos de Europa. Abuztuan Mont Blanc mendiaren gailurre-ra igo nintzela 50 urte egin du. Entrenatzeko, igandero Donostiara joaten nintzen. Mont Blanc menditik itzuli nintze-



Jon Arana, ezkerretik bigarrena, kobazulo batean.

nean mendizaleek deitu egiten zidaten nirekin hitz egiteko eta nik egin nuen hankasartzea ez egiteko esaten nien. Izan ere, Zumarragatik Donostiara joaten nintzen entrenatzeko. Mont Blanc-era joateko, ordea, behetik gora egin behar da! Ibilbide luzeetarako prestatu nuen neure burua, baina nire birrikak ez zeuden aldapak igotzera ohituta.

Hala ere, gailurra zapaltzea lortu zenuen. Euskaldunen artean, lehenengotaekoa izango zinen.

Urtebete lehenago-edo, hiruzpalau euskaldun hil ziren bertan. Gertaera hark bulzatuta joan nintzen, beharbada. Hiru lagun joan ginen, bi herrikoak: Santi Gutierrez eta ni. Santi eta hirugarren laguna moto batean joan ziren eta ni beste batean. Nik ekipajea eramane nuen. Motorra Ormaiztegiara ezkondu zen Felix Illarramendi eskolako lagunak utzi zidan. Autoa erosi zuen eta motorra nahiko baztertua zuen. Arantzazura joateko eskatu nion, baina nire asmoa bidaia luzeagoa egiteko proba egitea zen. Bigarren goz

eskatu nionean, Mont Blanc-era joateko, hura non zegoen ba al nekien galdetu zidan. Azkenean utzi zidan eta motorra nahiko hondatuta itzuli nion. Izan ere, bide estu batean frantses armadako kamioi batek sorora bota ninduen.

Ondo moldatu al zinen Mont Blanc-en?

Joan ginen hiru lagunotatik nik bakarrik igo nuen. Azken zatia Alemaniako bikote batekin egin nuen. Azkeneko aterpean atsedean hartzera gelditu ginela eta mantak izoztuta zeudela gogoratzen dut.

Nolatan hasi zinen espeleologian?

Betidanik gustuko izan dut. 1956an topaketak izan ziren Arantzazun eta ordurako nire abizena zeraman taldea sortua nuen. Hemengo espeleologoaren buru Felix Arkaute zen, baina nik ez nuen ezagutzen. Topaketetan Arantzazu ondoko leize batera joan ginen eta Arkautek botak kentzeko esan zigun. Niri ez zitzaidan aginduak ematen dituen jendea gustatzen eta kasurik ez egiten saiatu nintzen: nik neuk botak kendu nituen, baina nire kideak bizkarrean hartuta pasatu nituen putzutik.

Aurrerago estalagmita bat lurrian botata zegoen eta Arkautek "ya habran sido los de Zumarraga" esan zuen. Bereganara joan eta Zumarragakook kobazuloak berak bezainbeste edo gehiago errespetatzen genituela eta ezer jakin gabe inor salatzea ez zela bidezkoa esan nion. Hurrengo urteko topaketetan Arkautek gugatik galdetu zuen, ea zer taldetan parte hartu nahi genuen. Garrantzi handiagokoan parte hartu nahi genuela esan nion eta ea eskalak erabiltzen bagenekien erantzun zidan. Ez genekien, baina baietz erantzun nion. Ederra egin nuen! Lehena jaistea tokatu zitzaidan eta lagun batek emandako azalpenekin eskala erabiltzen asmatu nuen. Porru eginda itzuli nintzen. Harrezkero, Arkaute eta biok lagun minak egin ginen.

Karrantzako Torca del Carlista zuloa jaisten lehena izan zinen.

Bi leize zeuden egiteko: Torca del Carlista eta La gran ruptura. Guri bigarrena tokatu zitzaigun. Atsekabe handia izan nuen, zuloa oso txikia baitzen. Kanpamentuan geundela, Torca del Carlistan egon zirenak etorri ziren. 30 metro bakarrik jaitsi zituztela eta ondorengo ikaragarria zela esan zidaten. Arkauteri jaisteko baimena eskatu nion. 30 bat metro jaitsi ondoren, azpian hutsune izugarria nabaritzen zen. Harri bat bota eta kontaktzen hasi nintzen. Hamaika arte kontaktatu nuen! 100 eta 120 metro inguru gelditzen ziren. Hura zulo puska! Zorionez, putzurik ez zegoen.

Datorren urtean 50 urte betetzen dira Torca del Carlistan izan zinetik eta berriro jaitsi nahi duzu.

Antioko Amabirjinaren irudi bat jaitsi nahi dut, baina herriak emanda eta herriaren izenean. Horretarako, alkatearekin izan naiz. Iaz inguru hartan izan nintzen eta

semeak pixka bat jaitsi ziren. Ni ere jaistea nahi zuten. "Gaur ez, baina datorren urtean edo hurrengoan bai" esan nien.

Berriro jaitsi nahi baduzu, entrenatu egin beharko duzu.

Lehen eskalak erabiltzen ziren eta egun beste teknika batzuk erabiltzen dira. Semeei irakatsi egin behar didatela esaten ari natzaie.

Zuloak izan berezia du benetan...

Aspaldi aurkitu zuten, baina urte asko pasatu ziren inor jaitsi aurretik. Kondairak dioenez, karlisten kapitain bat bertatik pasatzen zen soldaduen soldatarekin eta handik behera amildu zen. Jaitsiera hasi nuenean, karlista aurkitzen banuen bere burua eta ezpata igoko nituela agindu nien. Bestalde, bagenekien bertan izandako madrildar batzuei karburu potoa erori zitzaie. Karburu potoa azaldu zen, baina kapitaina ez. Alu ederra hura... soldaduen diru guztiarekin ihes egingo zuen!

Sekulakoak egingo zenituen leize bila...

Urbian zulo interesgarri bat zegoela entzun nuen. Artzain batengana joan nintzen informazio bila, baina ez zuen hitz egiten. Zigarroa eskaini nion eta ez zuela erretzen esan zidan, emaztearentzat goxokiak eskaini nizkion eta hark ez zuela halakorik jaten esan zidan... Zer edo zer esan arte han gelditzea erabaki nuen. Halako batean aspertu zen eta zertarako joan nintzen galdetu zidan. Leizearen bila nenbilela esan nion eta berak diruaren bila joan nintzela erantzun zidan. Zuloa erakutsi zidan, baina urrea aurkitzen banuen berearekin gogoratzeko esan zidan.

Francoren garaian ikurriña jendaurrean erakusteko ere sekulakoak egin omen zenituen.

Ikurriña ahalik eta toki gehienetan jartzen



Jon Arana (bastroiekin) eta berearekin Mont Blanc-era joan ziren Markel Esnal (ezkerrekoa) eta Santi Gutierrez (kapeladuna).

saiatzen ginen. Eliz-Kalen sekulako San Joan sua egiten genuen eta baita zuhaitza jarri ere. Puntan, urte batean Jesusen Bihotzaren ikurra jartzen genuen, zapi txuri-gorria, eta hurrengoan Amabirjinarena, zapi txuri-urdina. Jesusen Bihotzarena jartzea tokatzen zen batean, lizarraren adar bat erdian sartu nuen eta hala txuria, gorria eta berdea elkarrekin jarri nituen. Beno! Hurrengo egunean sekulako iskanbila sortu zen. Goardia Zibila etorri zitzaigun, ikurriña jarri genuela-eta. Zerrakoei trontzarekin zuhaitza botatzeko agindu zieten eta nik erortzera zihoanean ahalik eta indartsuen bultzatzeko esan nien. Hala, adarra askatu egin zen. Ondoren, Artiz alkateak deitu zigun. Halako istiluetan ez sartzeko esan zigun, Espainiako bandera jartzeko. Hori ez genuela sekula egingo esan genion. Bera falangista zen, baina gizon ona.

Egia al da Zumarragako kanpandorrera igo zinela ikurriña jartzera?

Hala da. Gauez eta inori ezer esan gabe egin nuen. Gurutzera heltzea asko kosta-

tu zitzaidan eta gainean jarri nintzenez aurrera eta atzera hasi zen: oszilazio handia du. Hautsiko zela uste nuenean, beste aldera egiten zuen. Behera begiratu eta jende asko bildu zela ikusi nuen. Mutiko bat argazkiak ateratzen ikusi nuen eta amore eman behar izan nuen.

Komisaldegian behin baino gehiagotan izango zinen...

Goardia Zibil bat atzetik izaten nuen. Nire motxilan G.E.A. nuen bordatuta eta zer esan nahi zuen jakin nahi zuen. Grupo Espeleológico Arana zela esan nion, baina berak ez zuen sinistu. Gora Euskadi Askatuta adieraztea nahi ote zuen galdetu nion, nik ere hori nahi nuela, baina ez zela hala..

Askotan etortzen al zara oraindik Zumarragara?

Ez. Lehen igandero etortzen nintzen, bi lagunengana: Santi Gutierrezengana eta koinatuarengana. Txikiteoa egiten genuen eta gero arrebaren etxean bazkaltzen nuen. Biak hil ziren eta etortze-ari utzi nion.

Rojo, Zaldua y compañía: Beste garai baten azken lekukoa

Hamarkada batzuetan enpresak nonahi ireki ziren. Lantegi asko herri erdian eraiki ziren, inguru honen industria izaera agerian utziz. Egun tailerrak herrietatik ateratzea da joera, baina garai bateko aztarnak aurki ditzakegu oraindik. Garbiena Artiz auzokoa da. Rojo, Zaldua y compañía enpresaren tailerra eta Artizek bere langileentzat egindako etxea pega-pega eginda daude. Eredu zaharraren aztarna desagertzera doa, ordea. Enpresa Zumarragako industrialdera joan da eta Artiz etxea bota egingo da.

Argazkiak: Josu Altzelai, Lenbur Fundazioarentzat



Rojo, Zaldua y compañía enpresa 1924an ireki zuten sei bazkidek. Horietako bat Juan Zaldua zen, Jose Mariren aita. Azken hau dagoeneko jubilatua da, baina bera da lantegiaren historia hobekien ezagutzen duena.

Aipatu duenez, enpresa sortu zuten sei lagunetatik hiru Urretxuko Eguzkia tailerretan arituak ziren. Han ere muelleak eta baleztak egiten ziren. Hiru bazkide inguru honetan jaiotakoak ziren. Zalduak (kudeatzailea) eta Rojok (tailer burua) eman zioten izena enpresari, baina euren produktuen marka Rozalma da: azken silaba Mallea bazkideari dagokio.

Enpresa orain arte egon den tokian ireki zen. "Lursail hori guztia Alberto Artizena zen: Orbegozoren bulegoak zirenak, Legazpi auzunea, La Salle-Legazpi ikastetxea... Artizek orrazi lantegia zuen eta hari erosi zioten lursaila aitak eta bere bazkideek. Ordurako aldameneko etxea eginda zegoen", dio Zalduak. Garai batean pasonibela ere bazegoen eta Orbegozora zihoazen autoak pasatzen ziren bertatik. Beranduago kendu egin zen eta lurrazpiko pasabidea eta La Salleko zubia egin ziren.

Enpresak ere aldaketak izan zituen: bi handitze izan zituen eta Artizek bere langileentzat egindako etxea inguratu zuen ia. Luzera, tokia ez da ona suertatu ez lantegiarentzat berarentzat eta ezta bizilagunentzat ere, noski. "Etxe horretako bizilagunek ke asko jaso dute eta zarata handia jasan dute. Izan ere, etxetik tailerrera bi metroko patioa besterik ez dago".

Hala izanik, ez da harrizkoa bizilagunak aspalditik kezu izatea. "Lehen goiz eta arratsaldean lan egiten zen: 8.00etatik 12.00etara eta 14.00etik 18.00etara.



Eskaria hazi egin zen eta erreleboak sortu ziren: 6.00etatik 14.00etara eta 14.00etatik 22.00etara. Hori gutxi balitz, beranduago gaueko erreleboa ere martxan jarri genuen. Hori heldzarekin batera, bizilagunek nahikoa zela esan zuten. Udalarieuren keza azaldu zioten eta zenbait aldaketa egin genituen: labe bat aldatu genuen eta zenbait lan tailerretik atera genituen. Bide batez, lekualdaketaz hitz

egiten hasi ginen Udalarekin". Zumarragako industrialdera joateko aukera sortu zen. "Beasain-Durango errepidea pasatu behar zen bertatik, baina egitasmoa aldatu egin zen. Goragotik eta lurrazpitik pasako denez, lursail hau libre gelditu zen. Udalak erosteko aukera eskaini zigun eta, lekua apur bat estua den arren, onartu egin genuen. Lursaila egokitzeko zenbait arazo izan ditugu: mendiari zati





bat kendu behar izan diogu, baina toki batean zapa atera zen eta lurra oso ahula zela ikusi genuen. Horma egin behar izan genuen mendia eusteko eta horrek gastuak igo zituen", azaldu du Zalduak.

Tailer berria prest dago. "Denbora asko kostatu da. Lurra mugitzen hasi zenetik bi edo hiru urte pasatu dira. Dagoeneko makina gehienak goran ditugu. Behean fuelarekin lan egiten genuen, oso zikina da, eta hemen gasarekin. Behean ere gasa sartzeko asmoa genuen, baina Naturgasek oso garesti aterako zitzaigula esan zigun. Izan ere, industriarentzat dena hodi batetik eramaten dute eta etxekoa beste batetik eta oso urrutitik ekarri behar zen. Zumarragako industrialdean ere ez zegoen gasik eta guregatik sartu da".

Artiz auzotik Argixaora joateak beste aldaketa batzuk ere ekarri ditu. Besteak beste, zenbait makina berri dira. Izan ere, etengabeko berrikuntza ezinbestekoa da enpresa guztietan. Bere garaian, esaterako, baleztak egiteari utzi zioten. "Mota guztietako ibilgailuentzat muelleak

eta baleztak egiten hasi ginen. Nekazal makinariarentzat zenbait pieza ere egiten genituen. Ordezko piezak egiten genituen eta automobil enpresak kontzisionarioak euren ordezko piezak erabiltzera behartu zituztenean, autoentzako

"Tailerrera hurbiltzen

nintzen bakoitzean

banekien zer galdera

egingo zidaten: ea noiz

alde egin behar genuen"

piezak egiteari utzi behar izan genion. Kamioientzako baleztak egiteari ere utzi genion eta egun nekazal makinentzat espiralak bakarrik egiten ditugu: kultibadoreentzat eta ereitako makinentzat. Gu izan ginen Espainia mailan horretan hasi ginen lehenak. Horretaz gain, igogailuetarako eta industriarako espiralak ere

egiten ditugu. Beste enpresa batzuen katalogoetarako lan asko egiten dugu". Egun 25 lagunek lan egiten dute enpresan eta nagusiak sortzaileen oinordekoak dira. Kudeatzailea, berriz, Joseba Zaldua da; Jose Mariren semea. Pozik ageri dira lekualdaketaekin. "Abantaila asko ekartzea espero dugu. Materiala deskargatzeko oso gaizki moldatzen ginen. Lehen Bilbotik, Hernanitik edo Azkoititik ekartzen genuen eta kamioi txikietan ekartzen zuten gurean sartu ahal izateko. Baina guk behar dugun altzairua ez dute jada hemen egiten eta kanpotik ekartzen dute. Trailerretan ekarri behar izaten dute bidaia aprobetxatzeko eta ezin da Artiz auzoan deskargatu. Hori dela eta, Mugitegin lokal bat alokatu genuen eta bertara eramaten zuten. Gero, kamioi txikiago batekin Zumarragara eramaten genuen. Lekualdaketaekin denbora irabazi eta dirua aurreztuko dugu".

Egoitza berrian makina berriak sartzeko aukera ere izan dute. Zaharra uztaillean hustu zuten. Bertan etxebizitzak egingo dira eta Jose Mari Zalduak pena apur batez ikusiko du bere aitak eta haren bazkideek altxatutako tailerraren erausketa. "Ia parean bizi gara, gainera. Bestalde, 40 urte baino gehiago eman ditut bertan lanean", dio.

Artiz auzoko bizilagun askok ere urte mordoak daramatzate bertan bizitzen eta pozik hartu dute lekualdaketa. "Tailerrera hurbiltzen nintzen bakoitzean, banekien zer galdera egingo zidaten: ea noiz alde egin behar genuen. Secundino Esnaolakoe ere galdetzen zidaten, hain zuzen ere euren aldera jotzen zuenean eurak ere kaltetuak baitziren".

Urola: 25 urte gazteen artean eskubaloia sustatzen

Eskubaloia tradizio handiko kirola da Urretxu eta Zumarragan. Garai baten Goierrikoek gizonezkoen taldeazuten eta duela 25 urte, berriz, neskak Urolaren eskutik jokatzen hasi ziren. Klub honek jokalaria bikainak eman ditu, egun sei talde ditu eta aurten eskubaloi sailaren 25. urteurrena ospatzen ari da.



Taldearen sorrera bultzatu zuten neskak.



1982an eskubaloian jokatu nahi zuen neska gazte talde bat Jose Angel Garcia Vararengana joan zen, talde bat sortzeko laguntza eske. Bere eskubaloi zaletasuna aski ezaguna zen, jokalaria eta epaile lane-tan aritua baitzen. Neskei baiezkua eman zien eta Urola Kirol Taldearen barne saila sortzea erabaki zuten. Hala, Urolaren lehen eskubaloi taldea neskek osatua izan zen. 1982-1983 denboraldian jokatu zituzten lehen partidak, La Salle-Legazpi ikastetxeko jolastokian. Bigarrenak gelditu ziren: gol bakarragatik ez zuten txapela irabazi. Handik bi urtera mutilak elkartu zitzaizkien, hauek kadete mailakoak. Ordurako, Goierriren mutilen taldea desagertua zegoen.

Orditik, Urretxu eta Zumarragako makina bat gaztek jokatu dute eskubaloian. "Urteurrena dela eta zerrendak begiratzeko aritu gara eta guk uste baino askoz ere jende gehiagok jokatu du", dio Iñigo Cantero entrenatzaileak. Canterok ia 20 urte daramatza Urolan. "Futbolean ez nintzen oso abila, eskubaloian eta saskibaloian bukatu dugun gehienok bezala. Gainera, La Salleko irakasle bat, Roman,

oso zalea zen. Kadeteak entrenatzen zituen eta animatzen baginen nota igokoz zigula esan zigun", oroitzen du. Koadrila osoak eman genuen izena.

Cantero ez zen damutu. "Futbolean baino hobeto moldatzen nintzela ikusi nuen eta gelditzea erabaki nuen". Urte luzetan jokalaria izan zen, lesio batek eraginda utzi behar izan zuen arte. Orain, nagusien taldea entrenatzen du. Urolak beste lau talde ditu: senior mailako beste bat, jubenilena, kadeteena eta infantil mailakoa. Gauzak asko aldatu direla dio. "Antolaketa hobea dugu, baina oso lagun gutxi gaude lan egiteko. Hasieran Jose

Angelek-eta dena egiten zuten. Kirolari berari dagokionez, asko aldatu da. Lehen indar kontua nagusitzen zen eta orain teknikoagoa, azkarragoa eta ikusgarriagoa da. Egungo jokalaria hobeak dira. Guk, ordea, jenio biziagoa genuen. Lehen egur gehiegi ematen zen eta orain gutxiegi. Mutilei gogorragoak izateko esan behar izaten diet batzuetan".

Gizartea ere asko aldatu da. "Garai bateko gazteon taldearenganako konpromisoa handiagoa zen, baina aisialdirako eskaintza murriztagoa zegoela kontuan izan behar da. Egun mundu guztia joan daiteke eskiatzera edo asteburu pasa. Lehen inork ez zuen kanpinerako prestatutako furgonetarik, adibidez".

Dena den, Urolan konpromiso handiko jokalaria izan dituzte. Hala, duela gutxira arte, beterano asko zituzten. "Pixkanaka belaunaldi aldaketa ematen ari da. Dena den, Larreak, Jon Mendiak, Kanariok... urte asko daramate. Iker Soraluze ere beteranoa da, baina aurtengo azkeneko denboraldia dela esan du", iragarri du Canterok.

Aipatutako hauek guztiak eta bera bezala, eskubaloian gaztetan hasi beharra dago. "18 urtekoak eskubaloian hastea oso arra-

Urolan jokatu zuten mutil asko La Salle-Legazpin hasi ziren.



roa da. Izan ere, galduta senti daiteke. Dena den, gazteek gero eta lehenago uzten dute. Entrenamenduetako diziplinaz aspertu egiten dira eta askok 25 urte betetzerako uzten dute. Ordutik aurrera da, ordea, jokatzeko adinik onena". Zorionez, Urolakoek ez dute sekula gazteak bereganatzeko arazorik izan. "Urtero lortu dugu kadete, jubenil eta senior mailako taldeak ateratzea: batzuetan 14 lagun ez osatutakoak eta besteetan 9koak... Bolada kontua da. Futbolearen onenek jokatzeko zuten, baina eskubaloian denak hartzen genituen. Hala, koadrila osoak etorri izan dira", dio Canterok.

Garai batean, Bidasoaren eta zumarragar jatorriko Iñaki Urdangarinen arrakastak gazte dezente animatu omen zituen. "Dena den, gehienek futbola pro-

Urriaren 27an eskubaloia- ren inguruko festa izango da: Goierriko eta Urolako beteranoek partida jokatu- ko dute

batzen dute lehenengo", aitortu du Urolako entrenatzaileak. "Oso arraroa da mutiko baten lehen aukera eskubaloia izatea. Iker Serrano eta besteren bat salbuespena dira".

Serrano da, hain zuzen ere, Urolak eman duen jokalaria onenetako bat. Egun, Asobal ligako Almeria taldean jokatzeko ari da. Susana Fraile ere puntaren puntan da: Olinpiar Jokoak eta munduko txapelketak

Urolak zalego fidela du.



jokatu ditu. Markel Beltza, berriz, adinez jubenil mailakoa den arren, Bidasoaren lehen taldearekin jokatzeko ari da. Horrez gain, beste lau bat gazteek Arraten jokatu dute. Canterok etorkizunean ere Urolatik jokalaria onak aterako direla uste du. "Jubenil mailakoan mutiko onak daude. Kadeteak, berriz, hasiberriak dira. Beste taldeetan ere jokalaria onak ditugu eta aurrera aterako dira jarraitzen badute". Zaletuei buruz ere ez du kezarik. "Oso zalego fidela dugu. Kanpoko partidetera ere gutxienez 20 lagun joaten dira eta beste taldeetakoak txundituta gelditzen dira. Ispillara jende asko joaten da, gaintzeko kiroldegi gehienetara baino gehiago".

Orain arteko urteurren ekitaldiek ere jendetza elkartu dute. Maila goreneko bi partida jokatu dira, bata Urretxun eta bestea Zumarragan, eta bietara jende asko joan da. "Oso pozik gaude, herritarrek ondo erantzun baitute. Hori zen gure helburua. Maila oneko partidak ikusi ditugu eta, gainera, Iker Serranok eta Markel Beltzak parte hartu dute. Herritarrak euren egiten

zutenari begira zeudela ageria zen. Beraientzat ere oso garrantzitsua izan da jaioterrian jokatzeko".

Hurrengo ekitaldia urria amaieran izango da. "Urriaren 6an izatekoa zen, baina Iñigo Igartza jokalaria ohia egun horretan ezkonduko da eta gutako asko ospakizunera joango gara. Hori dela eta, ekitaldia 27ra pasatu dugu. Eskubaloia-
ren inguruko festa izango da: goizean haurrek jokatu dute eta arratsaldean Goierriko eta Urolako veteranoen arteko partida jokatu dute".

Garai bateko eskubaloia jokalaria berriro aritzeko irrikitan daude. "Batzuek denbora asko daramate elkartu gabe eta jokatzeko gogo handia dute. Partida ostean afaria egingo dugu. Abenduan, berriz, urte hauetan guztietan ateratako argazkiak erakutsiko ditugu. Bukatzeko, nesken arteko partida bat antolatu nahi dugu. Zaila izango da. Izan ere, Susana Frailek jokatzeko nahi dugu; baina datoren urtean Olinpiar Jokoak dira eta apenas izango du egun librerik", amaitu du Canterok.



Alex Areizaga

Informatika

Laster markak

Firefox interneteko nabigatzailean aukera dugu gustukoen ditugun web orriak eskura izateko laster markak eginez. Goiko aldeko menuko barraren azpian tarte bat hutsik izan ohi dugu. Egin behar dugun gauza bakarra, web orriaren helbidearen alboan azaldu ohi den marrazkitxoaren gainean klik egin, eta botoia askatu gabe barra huts horretara arrastatzea da. Modu honetan, gustukoen ditugun web orri edo blogak eskura izango ditugu, eta klik bakarrarekin ikusi ahal izango ditugu. Beste modu batean ere egin ditzakegu laster marka hauek. Web orriaren gainean eskubiko botoiaz klik egin eta bertan "agregar a favoritos" edo "laster marka egin" botoia sakatuz. Modu honetan, goiko aldeko menu barran dagoen "favoritos" edo "laster markak" botoian aurkituko ditugu gustukoen ditugun orriak.



Oihane Sudupe

Osasuna

Umorearen kimika

Elikadurak gure umorean eragina du. Zenbait elikagaiak, endorfina izeneko sustantzia batzuen eraketan parte hartzen dute. Sustantzia hauei "zoriontasunaren hormonak" deitu izan zaie. Izan ere, hauen fluxuak ongizatea eta minaren baretzea baitakar. Endorfina mailak era naturalean igotzeko fenilalanina aminoazidotan aberatsak diren elikagaiak ditugu: aguakatea, fruitu lehorrak eta sesamo haziak, besteak beste. Elikagai hauek gure dietan barneratzea interesgarria izan daiteke batez ere orain, udako oporren ostean lanera itzultzaren garenean.

Aspaldiko amatxo

Abaigarren, 2007ko uztailaren 6an

Aspaldiko amatxo:

Zer moduz zaudete etxean? Ni oso ondo nago. Aspertzeko astirik gabe eta lagun pilo bat egiten. Jator-jatorrak denak. Batzuk ezagutu ere egiten ez nituen herrietakoak dira: Igorrekkoa Ibai, Elgetakoa Miren, Oiongoa Iker, Aramaiokoa Saioa, Lesakakoa Alberto... Hurrengo urtean zuekin joango naizela bisitan esan diet denei. Horretarako automobileko mapan begiratu beharko dugu, baina hase-rreru gabe. Aita zu baino hobea da horretan, eta ez da zu emakumea zarelako eta bera gizona. Zu askoz gauza gehiagotan zara bera baino hobea. Adibidez, zuk berak baino askoz hobeto gidatzen duzu. Aitak mapak eta zuk gidatu, ez galtzeko eta ez mareatzeko. Lanak izango ditut azken horretan: lagun berrien arabera kurba askoren atzean daude beraien herriak. Igual beldurtu nadin nahi dute, ez joateko. Igual adarra jotzeko bakarrik da. Asko jotzen didate adarra, eta batzuetan ez dira hain jatorrak.

Igual arrazoi dute: Abaigarrerakoan, autobusean bitan egin bainuen botaka. Baina zuek badakizue orain, mutil handia egin naizenetik, apenas egiten dudala automobilean. Iñigo monitoreak ia urduri nengoen galdetu zidan. Zuekin urduri jartzen ez naizelako izango da. Ez naiz aspertzen hemen, baina urduri nago oraindik. Zu ni lasaitzen ere aita baino hobea zara. Eta beste gauza askotan, mapak egiten izan ezik. Iñigo nire monitoreak da, indartsua eta jatorra. Taldekideok apustua egin dugu: Iñigo monitoreak dio guztiok batera hartuko gaituela besoetan, eta guk ezetz. Horregatik asko jaten ari gara. Pisua hartzeko. Baina nik etxeko dilistekin amesten jarraitzen dut. Eta ez nuke jakingo aitarenak edo zureak diren hobeak esaten. Bionak dira hemengoak baino goxoagoak, baina apustua dela eta platerak garbi uzteko tratua egin dugunez... Nire izen ona eta ohorea dago jokoan. Nola mareatu nintzen...!

Iñigok lehenengo, urduri nengoen ala ez galdetu aurretik, ia ondo nengoen esan zidan. Kolore txarra izango nuen. Berdea jartzen naiz mareatutakoan. Txikia nintzenean jartzen nintzen. Handitu naizenetik ez bainaiz mareatzen zuk gidatzen duzunean. Iñigori ez nengoela urduri esan nion arren, egia da botatakoan bakarrik hartu nuela deskantsua. Eta ez nintzela zikindu ikusitakoan pixka bat gehiago lasaitu nintzen! Baina oraindik ez nago zurekin, kotxean, mareatzen ez naizenean bezain lasai. Zenbat egun beharko ditut? Noiz ahaztuko zaie mareatu egin nintzela, botaka egin nuela, eta noiz utziko diote adarra jotzeari? Zenbat dilista eta pure berde jan beharko ditut? Iñigok bazekin zergatik egiten zuen apustua: bazekien bestela ez genuela platerekoa bukatuko. Iñigok inozoak garela uste du ala? Ez da hain jatorra, ez pentsa.

Ama, eskerrak motxilako poltsiko txikian gozokiak sartzea okurritu zitzaizun. Mareatu nintzenean asko jan behar izan nituen ahoa eta urdaila goxatzeko. Hura zen botaka egin nuela gogoratu beharra! Horregatik ez dut uste udalekuak bukatu arte irauango didatenik. Pure berdearen ondoren ere jan behar izaten ditut batzuk. Goragalea jartzen zait bestela. Ezkutuan jaten ditut, komunean: ez mareatzeko bezain gizontxo eta emakumetxoak badira, ez dute gozokirik behar, ezta? Gainera, bestela, gozokiak dauzkadala bakarrik utziko diote igual niri adarra jotzeari. Edo beraiek ere pisua irabazteko jan behar dituztela-eta, nireak bakarrik diren gozokiak taldearen ondare izatera pasatzeko proposamena egingo dute. Edo bi eskuak bizkarrean lotu, ahoan zapi bat jarri eta nire motxila irekiko dute bila eta bila ibiliko dira. Umeak oso krudelak izan daitezke.

Amaia Artolazabal

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Iñigo Igartza

Iñigo Igartzak Ikastolan eta Lizeoan egin zituen oinarrizko ikasketak. Gero, Legazpira joan zen modulu bat egitera eta Bilbora marketinga ikastera. Proiektua Holandan eta Belgikan egin zuen. Hiru urte eman zituen Eroskin lanean eta bertan zer ez zuen egin nahi ikasi zuen. Rural Kutxaren bulegoko zuzendaria da duela sei urte-tik hona eta "oso gustura" dago. Kirolari petoa ere bada. Urte askotan eskubaloian jokatu zuen Urolarekin, bertan egin zuen koadrila, eta egun mendizalea da. Iazko udan istripu larria izan zuen, baina ia erabat osatu da eta Pirinioetara joateko irrikitan da.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Kirolaria, gainontzeko umeek bezala. Heldua ere bai.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira edo Martarekin Hondarribira joatea.

Bizitzeko toki bat?

Bizi naizen tokian gustura nago, baina Eitza esango dut.

Zein mendi gustatu zaizu gehien?

Vignemale. Zoragarria da. Bizitza luzea da eta itzuliko naiz.

Zein da zure ametsetako mendia?

Nire ametsak Pirinioetan zeuden eta bete ditut. Urtean 3 edo 4 igotzen genituen. Iñigo Garridorekin hasi nintzen mendian eta gero Joseba Garmendiarekin eta Eñaut Urbizurekin joan izan naiz.

Gustuko eskubaloi jokalaria?

Perunicic eta Svensson asko gustatzen zitzaizkidan.

Zeintzuk dira Urolan ikusi dituzun jokalaria onenak?

Iker Soraluze eta Gorka Mendia. Iker oso argia zen eta Gorkak kalitate izugarria zuen.

Zein da eskatu dizuten mailegurik xelebreena?

Batek 1.000 milioi euro nahi zituen eta Banku Mundialarekin hitz egin nahi zuen, ez zegoen burutik ondo.

Ilehoriak ala beltzaranak?


Irrifarre errazekoak. Jende alai gustatzen zait.

Egindako azken oparia?

Komiki bat.

Eta jasotakoa?

Azkeneko urtean Martak eta nire familiak eskaini didaten maitasuna eta laguntasuna. Oso hilabete gogorak izan dira.



Data bat?

Bi esango ditut. Bata, urriaren 6a. Egun horretan ezkondu behar gara eta iloba egun berean jaio zen. Bestea, uztailaren 17a. Egun horretan izan nuen istripua. Orduetik, gauzak lasaiago hartzen ditut.

Neska eta mutil izen bana?

Josu, Joseba eta Eñaut. Erori nintzen tokitik atera nindutenak. Bestalde, Z eta TZ duten euskarazko izenak asko gustatzen zaizkit. Doinu polita dute.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Tabernan harrapatzen dudana.

Gustuko telebista saioa?

Ez dut ia ikusten. Afaldu eta ohera joaten naiz liburu batekin.

Bereziki gorroto duzuna?

Telebista, orokorrean, denbora galtzea iruditzen zait.

Liburu bat?

Nobela grafikoan *Murena* eta bestelakoan *El maestro y Margarita*.

Abesti bat?

Musika izugarri gustatzen zait. Bulegoan 300 bat disko ditugu.

Soinu bat?

Itsasoarena oso lasaigarria da.

Usain bat?

Basoarena, euria egin ondoren.

Janari bat?

Pasta eta arraina.

Ura ala...


Ura bai, bazkaltzeko eta afaltzeko sagardoa eta ardoa eta bestela garagardoa. Aukeran, beltza.



Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen
eraikuntza

Industria
pabilioiak

Urbanizazio
lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren
ondoan **6 chalet adosaturen**
eraikuntza berria

Curso 07-08 ikastaroa

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA
Labeaga kalea 40 A (Belaustegi plaza berria) URRETXU
Tel: 943 72 33 10
euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

Egizu euskaraz!

nahi baduzu...

egingo duzu

¡Comunícate en euskera!

si quieres...

puedes

ESKAINZA
EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE, EGA eta BOGA
ERRITMOAK

Modulu eta ordutegi zabalak
Bekak eta laguntzak
MATRIKULA ZABALIK
16 urtetik gorakoentzat
Informazio gehiago Udal Euskaltegian
BULEGO ORDUTEGIA
Goizez: 09:00-13:00/Arratsaldez: 15:00-19:00

OFERTA
Todos los niveles de EUSKALDUNIZACIÓN, ALFABETIZACIÓN, EGA y BOGA
RITMOS

Módulos y horarios flexibles
Becas y ayudas
MATRÍCULA ABIERTA
A partir de 16 años
Para más información acude al Euskaltegi Municipal
HORARIO DE OFICINA
Mañanas: 09:00-13:00/Tardes: 15:00-19:00